



CURRICULUM ABERASTEA



Donostiako Berritzegunea
2018-11-22

SAIOAREN EDUKIA

1. Partaideen aurkezpena
2. Ikastetxeen egoera
3. Mintegiko planteamendua: helburuak, edukiak, datak
4. Kontzeptuak adosten
5. Oinarrizko behar psikologikoak
6. Baliabideen azoka
7. Gehiago jakiteko
8. Hurrengo saiorako
9. Ideia ibiltariak

1.AURKEZPENA: GURPIL OPAROA

DINAMIKA

Partaideen artean bi borobil osatuko dute: bata erdian eta bestea kanpoan, elkarri begira.

HELBURUA

Izenak ikastea eta ikastetxean gaiaren inguruan egiten ari direna partekatzea.

GARAPENA

1. Kopuru bereko bi gurpilak osatu.
2. Musika jartzerakoan borobilaren ibilbidea eginez ibiltzen hasiko dira. Musika gelditzen denean, aurrez aurre dutenarekin hitz egin.
3. Lehenengo batek eta gero besteak norberaren izena, ikastetxea eta gaiaren inguruan egiten ari direna elkarri kontatuko diote.
4. Musika berriro hasiko da eta gelditzean beste batekin egingo da.
5. Hiru aldiz egin ondoren, bakoitzak beste baten aurkezpena egingo du. Beste batzuek lagundu dezakete informazioa osatzen.

Dinamika hau helburu ezberdinez erabil daiteke: aurre-ezagutzak aktibatzeko, dauzkaten zalantzak bideratzeko, ikasi dutena partekatzeko... Behar duten ikasleei laguntza nola eman landu daiteke – nolako galderak egin, esaldiak borobildu, eredu zuzena eskainiz...

2. JARDUERA: IKASTETXEAREN EGOERA

DINAMIKA


Diana

HELBURUA

Egun ikastetxean adimen handiko ikasleen inguruan egiten ari dena partekatzea.

GARAPENA

1. Bakoitzak, edo ikastetxe bereko irakasleek, gaien garapena zein mailatan dagoen adieraziko du.
2. Taldekide guztiekin partekatzea.



Dinamika hau ikasitakoaz hausnarketa egiteko erabil daiteke.

3.CURRICULUM ABERASTEA MINTEGIA

HELBURUA

- Curriculuma aberasteko proposamenak garatzea

EDUKIAK

- Eskola praktiken partekatzea
- Curriculuma aberasteko gakoak
- Modalitateak eta estrategia metodologikoak
- Baliabideak eta esku-hartzeko proposamenak
- Adimen gaitasun handiko ikasleen identifikazioa
- Esku-hartze espezifikoen planifikazioa.

EGUNAK

- Azaroaren 22a, abenduaren 13a, urtarrilaren 24a, otsailaren 21a, martxoaren 21a eta maiatzaren 9a

ORDUTEGIA

- 14:30-16:30
- Abenduaren 13an 17:30

3. MINTEGIAREN PLANTEAMENDUA

Aurre-ikusitakoa:

- Lanaren markoa
- Saio berezia Lore Aretxagarekin: Identifikazioa. Ezaugarri bereziak. Ez ohiko neurriak.

Gai posibleak aukeran:

- [Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala](#)
- [Irakaskuntza berezitua](#): Interesaren, ikaskuntza profilaren, gaitasunaren arabera planifikazioa
- Ikaskuntza kooperatiboa
- Sormena
- Emozioen hezkuntza
- Beste estrategia batzuk: Visual-thinking, Pentsamendu errutinak, Aberaste txokoak, Kutxa magikoa, Ikaskuntza dialogikoa, Flipped Classroom...

Hasteko aukeratu diren gaiak:

- Emozioen hezkuntza
- Irakaskuntza berezitua
- Sormena

Saioen dinamika:

- Aukeratutako gaiaren inguruko oinarrizko informazioa helarazi saio aurretik ikusteko.
- Saioan laburpen bat egin eta ideiak partekatu.
- Taldean aukerak aztertu bakoitzaren egoerara egokitzeko.
- Esperientziak, zalantzak eta beharrak partekatu elkarri aberasteko eta laguntzeko.

4. JARDUERA: KONTZEPTUAK ADOSTEN

DINAMIKA

1-talde osoa

HELBURUA

Adimen gaitasun handiko kontzeptuak adostea: supergaitua, talentua, talentu akademikoa, goiztiartasuna, errendimendu altua, potentziala

GARAPENA

1. Irakasle bakoitzak emandako kontzeptuen definizioa ematen saiatu.
2. Talde osoarekin partekatu .

Ondorioa: Ikasleen aniztasuna handia da eta bakoitzaren ezaugarriei begiratu behar diegu beharrei erantzun ahal izateko.

6. BALIABIDEEN AZOKA



Donostiako Berritzeguneko Moodlea: Adimen gaitasun handiko ikasleak

<http://elearning3.hezkuntza.net/013156/course/view.php?id=73§ion=3>

Curriculum aberastea mintegiaren Moodlea:

<https://elearning3.hezkuntza.net/013156/course/view.php?id=84>

7. HURRENGO SAIORAKO


Ikastetxearen plangintza edo asmoak gai honekiko:

- Identifikazioa: garapen eskalak, bestelako probak... , nork egiten duen
- Familiekin zerbait egiten bada
- Esku-hartze kolektiboa, banakoa...
- Aniztasun planean kontuan hartzen den ala ez
- Esku-hartzearen planifikazioa: nork, norekin, nola...
- Esku-hartzearen jarraipena: maiztasuna, nork, norekin...

Galderak eta zalantzak Loreri egiteko prestatu.



9. IDEIA IBILTARIAK



- Ideiak partekatzea aberatsa da.
- Pentsatzen genuen baino gehiago egiten dugu.
- Besteen esperientziak ezagutzea.